

Herri txikien etorkizunari auzolaneko kultura eta balio komunitarioetatik begira

Muñoa Errasti, Ion
Eizagirre Eizagirre, Andoni

1. Sarrera

Euskal Herriko herri txikiek zer-nolako etorkizuna izango dute? Zer egin mundu aldakorrean bizirauteko? Zeintzuk dira etorkizuna izan dezaten beharizan nagusiak? Eta erantzun beharreko hutsuneak? Ez dira berriak galdera hauek, ezta gutxitan eginak ere. Kezka eta kontzientzia baten erakusle dira; gure auzo eta herriak inporta zaizkigun eta haien etorkizunak kezkatzen gaituen erakusle, neurri handi batean, krisi baten erakusle. Landa eremuko herriei begiratzen badiegu, nabarmena da Euskal Herriko herrialde eta bailara ezberdinetan ez dela egoera berbera; ezta bilakaera berbera ere. Baina bistakoa da guztietan gauzak asko aldatu direla azken hamarkadetan; Europako landa eremuetan aldatu diren gisan. Gurean, aldaketak bertako biztanleen eta erakundeen egokitzeko ahaleginarekin batera etorri dira. Eta sekulako lana egin da azken hamarkadetan, herri hauen biziraupena eta etorkizuna lantzeko. Bide horretan, eta aurreko galderei erantzuten hastean, ordea, ikuspegi, begirada eta iritzi ezberdinak daude. Batzuk besteak baino egokiagoak izan edo ez, erantzunen artean, askotan faltan ematen dira mota batekoak: alde ez-materialari lotutakoak.

Azken hamarraldietan, landa garapeneko lan eta politika gehienak baldintza materialak hobetzera bideratu dira, nagusiki bi lerrotan: herri horietako jarduera ekonomikoa eta lehen sektorea sustatzera; eta egungo ongizate estatu eta gizartearen zerbitzuak ahalbidetzera (eskolak, osasun etxeak, elektrifikazioak, saneamentuak, azpiegiturak, etab.). Ahalegin ia dena baldintza eta azpiegitura materialetan egin izan da (eta ziurrenik hala behar zuen), baina gure ustez, esfortzu horren emaitza asko posible izan dira baldintza ez-materialak zeudelako herri horietan (jendearen pentsatzeko eta jokatzeko modu batzuk). Etaaldi berean, ziurrenik ez da behar bezain kontuan eduki alde ukiezina sustatzea: kultura, komunitatea, ohiturak, balioak... Baina egungo munduan, eta egungo errealitatean, herri txikiek etorkizuna izango badute, uste dugu alde materiala hainbat zaindu, garatu eta landu behar dela alde ez-materiala.

Hain justu ere, alde ez-material horretan topatzen dugu “auzolanaren kultura” deritzoguna; kultura komunitario gisa ere izenda dezakeguna, edota euskal kultura tradizional moduan ere ezagutu izan dena. Zorionez edo zoritxarrez, azken urteotan “auzolan” hitza modan jarri da; edo gutxienez haren erabilera handitu da. Hitza asko erabiltzeak berekin du hura edukiz husteko arriskua ere. Izan ere, eta asko laburbilduz, auzolanaren kulturak bere baitan balio sistema bat, mundu-ikuskerak oso bat eta antolakuntza sozial modu batzuk jasotzen ditu, eta beraz, ez da elkarlan hutsera edo bide-garbitze hutsera mugatzen. Garrantzitsua da ezberdintasun kontzeptual horretan arreta ipintzea eta behar bezala argitzea esanahiak, aurrera begira lan egin ahal izateko. Baina edozein modutan, eta egun erabiltzen diren adiera gehienek kontzeptuaren esanahi guztia bere baitan osotasunez biltzen ez badute ere, aukera ederra daukagu bide horretan etorkizuna lantzeko.

Ikuspegi horretatik jaio zen 2018an *Auzolantzen* proiektua, Zerainlab elkar-teak sustatuta, Kutxa Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, eta Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikertzaile talde batek gidatuta. Ikerketa, gogoeta eta esperimazioa uztartuz, herri txikietan oraindik bizirik dauden balio, kultura eta ohituretatik abiatuta, herri txikien etorkizuna indartzeko bideak ireki nahi ditu ekimen honek. Horretarako, auzolanaren kulturari buruz gehiago ezagutu, eta jakintza horretan oinarrituta, elkarlanean etorkizuneko aukera, molde eta ideia berriak landu eta esperimintatzea da helburua. Betiere, horrekin guztiarekin, Euskal Herriko herri txikiek etorkizuna izan dezaten, ikusten ez diren, baina gure barru-barruan ditugun balioetan, mundu-ikuskeran eta jokabideetan oinarrituz etorkizun hoberako aurrerabidea lantzeko borondatea dago.

Artikulu hau *Auzolantzen* proiektuan landutako eduki batzuen emaitza da. Zehazki, honako galdera du abiapuntuan: Herri txikien etorkizuneko garapenari lagun diezaiokeen heldulekurik ba ote dago auzolanaren kultura? Galdera horri erantzun nahian, lehen zatian, “auzolaneko kultura” deritzogunaren eta balio komunitarioen marko teorikoa ezartzen da. Ondoren, proiektuaren baitan egindako gizarte-ikerketak konkretu bat eta bere metodologia aurkezten dira. Jarraian, ikerketa horren emaitza nagusiak plazaratzen dira. Azkenik, ondorio batzuen bitartez, abiapuntuko galderari erantzunez, eztabaidarako hainbat hausnarketa partekatzen dira.

2. Marko teorikoa

2.1. Kulturaren garrantzia soziala

Kulturari buruzko definizio ezberdinei arreta ipiniz gero, gutxi asko bi osagai nabarmendu daitezke: alde batetik, kultura beharizanak sentitu, pentsatu eta bizitzeko modua da; eta, bestetik, kultura beharizan horiei erantzun edota eraldatzeko jarrera, portaera eta erakundeen multzoa ere bada.

Jakina, kulturak izaera bizia du, giza-taldeen beharizan fisiologikoak, psiko-sozialak eta moralak aldakorak direlako eta giza-beharrizanei erantzuna emateko burubideak, egintzak eta antolaera sozialak ere transformatu egiten direlako. Bestalde, pertsona, auzo eta herriek izan ohi duten bilakaera kulturala eta moralak joan-etorrikoa izan daiteke. Esate baterako, modernitatearen antropologian sustraituak

daude banakotasuna, kontsumismoa eta bizi-horizonte iragankorra (Bauman 1988, 2007). Baina azkenaldian, eta Covid-19aren izurriteak agerian utzi duen bezala, XXI. mendeko igarobidean Mendebaldeko kulturetan pertsonaren hauskortasun psikikoa, bakartasuna, eta horren gaineko kontzientzia gero eta bistakoagoa da. Matata beraren haria da guztion ona bilatzeari, bizitzari zentzua emateari, erantzukizunez aritzeari, edota besteekiko hurbiltasunari loturiko auzien gaurkotasuna, bai eta herrigintzan, politikan edo elkarren arteko araubideetan auzi moralak errekuiperatzeari loturiko planteamendu filosofikoen garrantzia ere (Sandel 2010). Mendebaldeko gizarteetan bada duela gutxiko beste ikasgai bat: ezberdintasun sozialak, polarizazio afektiboak edota norberak berea eskatu eta bilatzeak ere elkarrekin bizitzeko esperientzia zalantzan ipintzen dutela. Pertsona eta giza-taldeen arteko esperientzia komunik eta espazio zein ikusmolde partekaturik gabe, ordea, elkarren arteko bizitza ez da posible (Sandel, 1982; Taylor 2007).

Guztiarekin, kulturari buruz ari garenean etxearekin, herrikideekin, auzoekin eta ondasunekin ditugun harremani buruz ari gara. Bestela esanda, kulturak pertsona eta giza-taldeei errealtate naturalean eta sozialean bizi gaitezen baliabide teknikoak, moralak, kognitiboak, instituzionalak edota materialak eskaini eta portaerazko jarraibideak eta gizarte-ohiturak ezartzen dizkigu. Alde horretatik, kulturak sakon-sakonean hiru galdera nagusiri buruz interpelutzen gaitu. Hau da lehen galdera unibertsala: zer nolakoak dira gure harremanak etxekoen artean, eta auzokideen artean? Bigarren galdera unibertsalak auzoen arteko galderari buruz galdetzen digu: zer nolakoak dira gure harremanak auzoen artean? Bi galdera horietan, bistakoa denez, etxearen antolaerari eta etxekoen harremani buruz ari gara, eta etheen, auzoen edo eskualdeen artekoei buruz ere bai. Horiez gainera, galdera haiek gure aurrekoekin eta gure ondorengoekin lotzen gaituzten auziak azaleratzen dizkigute: ze pisu dute tradizioz jaso eta transmititutako pentsaera, jokaera eta sentierak gure eguneroko portaera eta jokabideetan?; zein arreta ipintzen diegu gure jardueretan ondorengoei eta hauen bizi-aukerei?; zein garrantzia dute transzendentziako auziek gure bizi-gogoetan? Kulturari loturiko bi galdera nagusiek, beraz, bizitzari buruzko sustraiko gaiak mahai-gainean ipintzen dizkigute. Hirugarren galdera unibertsal bat ere badugu, ordea: zeintzuk dira etxeek eta auzoek ondasun iraunkorrekin, herri-lurrekin, naturarekin ditugun harremanak?

2.2. Auzolaneko kultura

Auzolana izan da euskaldunok tradizioz gure beharizanei erantzuna emateko burubidea, egintza eta antolaera soziala. Auzolanak eskutik burujabetza du, ordea. Azal dezagun, landa-eremuko auzo eta herri txikietako zuzenbide publiko foralaren argibide nagusiak laburbilduz, zertan diren gure tradizioan auzolana eta burujabetza¹.

Euskaldunon biziera tradizionalan pertsona edo etxea burujabea izan da. Etxekoei zegokien euren eskuen eta buruen jabe eginaz elikatzea, hotzetik eta be-

1. Gai hauetan sakontzeko, Euskal Herriko kultura tradizionalaren ikuspegi bat, oinarrizko gai etnografikoak abiapuntu harturik, ikus *Euskaldunak: Euskal etnia* zazpi liburuk osaturiko bilduma, Etor-Ostoa, 1978-1993.

rotik babestea, eta beharrianak asetzeari. Hari beretik, euskal lurretan tronkalitateak esan nahi zuen etxerakoa izendatuari zegokiola etxea eta familia aurrera ateratzea; etxerakoak gurasoen hitza ematen zien lurrak eta ondasunak landuz etxekoekin beharrak erantzungo zituela. Jabe egiteak esan nahi zuen senitartekoekin beharrak aurrera ateratzeko erantzukizuna bere gain hartzea.

Baziren etxekoekin euren kabuz aurrera atera ezin zituzten beharrianak, edo zereginak eta ardurak. Alde horretatik, etxe edo baserri guztiek zituzten elkarren arteko betekizunak edo obligazioak. Esate baterako, aldameneko baserrietan jaiotzako, ezkontzako edo heriotzako sasietan baserriek tradizioz esker oneko eta zaintzako konpromisoak zituzten. Era berean, etxekoekin inguruko baserriekin lanaren elkarrekiko zerbitzuak erakundetuta zituzten: ordeak, alegia, etxekoak eurak aski ez ziren beharrianak asetzeko laguntza ematen zen (lariatzea, artotxuriketa, ardimoztea, egurketa); karitatezko lanak, hau da, etxeren batean pertsonaren galera zela eta, alargunari eskua bota ohi zitzaion urte-sasoiko beharretan; eta auzokideentzako prestazio materialak (zimaur lorra, bildots lorra, zur lorra). Era berean, baserriek amankomunean auzoko bizitzari zegokion beharriari erantzuten zieten (auzoa elizarekin edo hileriarekin lotzen duen bidea garbitu eta konpontzea; beste auzoekin edo herriguneearekin lotzen duen bideen txukuntzea; erretzen, uraska edo putzuak garbitzea; ermiten antolaldia; bestelako prestazioak eta laguntzak).

Auzolaneko portaera horietako askok komunitate euskaldunetan gaur artean iraun dute. Gainontzean, ekonomiako beharrianak aldatu eta gizarteko egitura eta harreman bakunak gero eta konplexuagoak egin ahala, ohiturazko antolaketa sozialean eta politikoa ere hartu-eta-emateko erakundeak biziberritu dira (Kofradiak, Konsejuak, Zenteak, Ermandadeak, Partzuerrak, Lur komunalak, edota Partzoneriak, besteak beste). Alde horretatik, tradiziozko ohiturek eta ordenantzek mendeetan zehar auzolaneko jarraibideak aldiro-aldiro eguneratu dituzte. XIX. mendearen bukaeratik abertzaletasunak ere tradizio foraleko erakundeen galerari erantzun eta gizarte babesezko, lan harremanetako edota euskara eta kultura berpizteko ekimen popularrak abian ipini ditu². Arizmendiarrietaren hitz hauekin ondo laburbiltzen da euskaldunaren tradiziozko kultura, landa-eremuko auzo eta herrietan bederen: "Bakarti-berak izanarren auzo-miñik gabeak ez gara izan, edo auzoerakundeen bidez jokatu izan oi dogu".

2.3. Elkarrekikoaren zentzua

Auzolanak, jakina, auzo eta herrietako beharrianak aldatu ahala, molde ezberdinak hartzen ditu, ezinbestean. Oraindik ere auzolanaz ari garenean gehientsuenean herri-bideen garbiketa moduko portaerak ditugu buruan. Auzolanak, ordea, forma asko eta ezberdinak hartu ditzake, bere jatorriko esanahia ganoraz ulertzen badugu: auzolana pertsona burujabea eta elkarrekikoaren zentzuan oinarrituriko kultura berezia da. Azken finean, auzolana zera da: kulturari loturiko galdera unitbertsalei euskaldunok tradizioz emaniko erantzuna; pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzekeko modu zehatz bat.

2. Euskaldunok ohituraz ondasunekiko izan ditugun harremanei buruz, ikus Juaristi 2001.

Auzolanaren esanahia eta bere inplikazio kulturala dira egiatan axola dutenak, auzolanaren formak batzuk edo besteak izan. Horretaz jabetzeko aski da euskaldunon iragan hurbilari begiratzea. Izan ere, Euskalherria bezalako herri txiki batean, pertsonak gaur egunean dituen bizi-maila oparoa eta aukeren ugaritasuna, jende on eta saiatuaren eskuzabaltasunari zor zaio. Pentsa dezagun, etxeko sutondoan entzundako tradizioari jarraipena emanaz, XX. mendearen bigarren erdialdean zehar, sustraiko transformazio ekonomiko, izpiritual eta politikoen testuinguru gogorrean, enpresak sortu eta aurrezkiak inbertsiorako erabili dituzten gizon-emakumeetan; lankidetzako egitasmoen bidez finantza-baliabideak herri-egitasmoetara bideratu dituzten haiengan; herri-erakundeen zerbitzuei itxaron gabe bere esku-buruez jabetu eta ondokoari eskua botatzen dien auzokideetan; herri edo eskualdeko erakundeen arteko elkarlana bideratu eta herrikideon bizi-aukera indibidualak eta kolektiboak ireki eta aberastu dizkiguten pertsonetan.

Galdera handiak edo utopiak zertan bistatik galdu gabe, eguneroko isilean zintzotasunez eta eskuzabaltasunez aritzeari zor diogu euskaldunok gure bizi-garapena. Euskaldunen kulturari zurrerik balio moralen eta zentzu praktikoen arteko oreka korapilatsu horrek garrantzia berezia izan du. Arizmendiarrietaren gogoeta batek honela dio: “Gure [euskaldunon] ezaugarrietako bat zentzu praktikoa izan da, aukeren alorrean jokatzeko jakitea, idealak aldatu gabe eta idealoi uko egin gabe. Denon onerako, aukerak biltzen eta ez alperrik galtzen jakin dugu”. Elkarrekikoaren zentzuari zor diogu Lanbide Heziketak gurean izaniko garrantzia eta etengabe berritzeko bokazioa, bai eta ere tradizio industrialari eutsi eta berritzeko apustua, edo langileek enpresekin ahalegina partekatuz pentsio osagarria izateko sistema. Gurean kooperatiba industrialek duten pisua da aipagai dugunaren beste adibide egokia. Euskara biziberritzean, kulturgintzan, pertsonen laneratzean edota gizarte zerbitzuetan ere, ekimen herrigile ugari topatzen ditugu³.

Euskalherrian “pertsonak elkartu eta batera arituta” (Arendt 1958) egitasmo on askoak aurrera ateratu dituzte. Ekimen haiek, azken batean, justiziarri eta erantzukizun demokratikoari loturiko konpromiso normatibo sendo batean oinarritzen dira; erreforma jarraituak eta arrazoizkoak egiteko gaitasuna erabakiak hartzeko, deliberatzeko eta esperimendatzeko kulturari eta arduran datza. Honek guztiak zera iradokitzen digu: gerra-osteko belaunaldiak ere etxeko sutondoan iraganeko esperientziak entzun ez ezik, ulertu ere egin zituela, eta ulermen hori etorkizuneko bizipen eta esperientzietan baliatzeko ezagutza praktikoa izan zela; testuinguru eta une zeharo ezberdin batean, gurasoei entzundako esperientziari zentzua eman, eta egoera berrian modu zuzenarean erabiltzen jakiteko kemen eta gaitasun moralak, kognitiboak eta emozionalak, alegia.

Euskalherrian giza garapen iraunkorreko ereduak erroto bada, hori zor zaio euskal tradizioari kultura irauteari eta elkarren arteko arrazoiak, esperimendazioan eta ulertzean oinarritu izanari. Horregatik diogu auzolanaren esanahia eta bere inplikazio kulturala direla garrantzia dutenak.

3. Horri buruzko azalpen teoriko-kontzeptuala eta herri-ekimen ugariaren testigantza liburu batean luze eta zabal sakondu berri dugu. Ikus Eizagirre eta Muñoa 2021.

2.4. Arazoaren formulazioa

Gure ustean, gaur egunean auzolanari buruz ari garenean, bi arazo nagusi daude, eta biek elkarri elikatzen diote. Lehen arazoa da gure irudimen sozialean auzolana iraupeneko nekazal-gizarteko portaera eta antolaera sozialari lotua ageri dela. Auzolanaz ari garenean gehientsuenetan herri-bideen garbiketa moduko portaerak ditugu buruan. Ikusi dugu, ordea, euskaldunon tradizioan auzolanak forma oso ezberdinak hartu dituela eta unean uneko beharizanei erantzuteko balio izan duela. Bigarren arazoa da ziurrenik azken hamarkadetan auzolanaren kulturaren transmisioan, sozializazioan eta berregitean galera handia gertatu dela, besteak beste, euskaldunon bizieretan emaniko aldaketa sozialak, ekonomikoak eta kulturalak direla eta. Belaunaldien arteko elkarbizitzak gure etxeetan garrantzia galdu duen bezalaxe, oparotasunaren kulturak ere eragin du banakoan eta bakoitza berera joateko portaeretan, beharizan iragankorren lehenestean, eta bestearekiko erantzukizunaren galeran. Bi arazo horiek elkarri elikatzen diote, gainera: pertsona eta giza-taldeek elkarrekin batera aritzeko kulturak garrantzia galtzea eta auzolana idealizatu eta iraganeko antolaerekin lotzea mataza beraren hariak izan litezke. Arazo-sorta horrek garrantzia berezia izan du gure ikerketaren planteamenduan, formulazioan eta interpretazioan, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala.

Auzolanak, ordea, forma asko eta ezberdinak hartu ditzake, bere jatorriko esanahia ganoraz ulertzen badugu: auzolana pertsona burujabea eta elkarreki-koaren zentzuan oinarrituriko kultura berezia da. Azken finean, auzolana zera da: kulturari loturiko galdera unibertsalei euskaldunok tradizioz emaniko erantzuna; pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko modu zehatz bat. Alde horretatik, gaur egunean landa-eremuko auzo eta herrietan auzolanaren gaurkotasanaz eta elkarren arteko bizitza berregiteari buruz ari garenean, gure ustean sustraiko esanahiari arreta gehixeago ipini behar diogu, esperientzia konkretuei eta hauen galerari baino. Jakinekua denez, mundua zeharo bestelakotu zaigu, eta euskaldunok ere hainbatetan guztia bestearen esku uzteko tentaldia izan dugu. Baina hori egiaren zati bat da, zorionez. Auzolana, euskaldunok tradizioz jasotako kultura, bizitza sozialeko eremu ugarran agertzen zaigu, gaur oraindik ere.

3. Ikerketaren aztergaia eta metodologia

Marko teorikoan azpimarratutako kontzeptu, eduki eta ideia nagusiak oinarrian hartuta, eta formulatutako arazoetatik abiatuta, definitu da ikerketa honen aztergaia eta diseinatu da plazaratutako ikerketa. Planteamendu hauekin aurrez mota honetako gizarte-ikerketarik ez egoteak baldintzatu du ikerketaren diseinua eta gauzatzea. Horrela, berariaz gure abiapuntuko galdera eta kezka-eremuetara egokitu da ikerketaren diseinu orokorra. Artikulu honetan jasotzen diren emaitzak zehazki, inkestaren teknika erabiliz egindako gizarte-azterketa bati dagozkionak dira.

Ikerketaren diseinu horretan uztartu dira ibilbide eta tradizio handi xamarra duten kultura politikoko (Almond eta Verba, 1963) eta balio sistemei buruzko (Inglehart, 1977 eta 1997) galdetze-moduak eta propio ikerketa honetarako sortu diren auzolanari eta herri txikiei buruzko galderak. Kultura politiko eta balio siste-

mei buruzko galderak prestatzeko, gainera, alderatzea posible izan zedin, Gipuzkoan azken urteotan egindako bi gizarte-ikerketak oinarri izan dira: Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019ko ikerketa soziopolitiko eta Azkerrek 2017an Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako *Gipuzkoako Kultura Politikoari buruzko azterlana*. Auzolanari eta herri txikiei buruzko galderak prestatzeko, aldiz, gaiari buruzko literatura eta herri txikietako hainbat pertsonarekin egindako elkarrizketa esploratorioak kontuan hartu dira.

Aztergaiaren mugatze geografikoari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoa hartu da eremu gisa. Eta zehazki, herri txiki kontsideratu dira 2.500 biztanletik beherako udalerriak, Gipuzkoako Foru Aldundiak irizpide hori darabilelako bere plangintza eta politika publikoetan “herri txiki” gisa hartzeko. Horrela, inkesta honen unibertsoa Goierri, Tolosaldea, Deba bailara eta Urola Kostan dauden 49 udalerri-tako biztanleek osatzen dute, guztira 16 urtetik gorako 40.000 biztanle inguruk.

Inkestaren ezaugarri teknikoek dagokienez, CATI sistema erabiliz telefono birtartez egin ziren elkarrizketak 2020ko irailean. Guztira 301 pertsonako laginari egin zitzaion elkarrizketa. Lagin horren errorea honakoa da: $e = \pm \%5,63$ (% 95eko konfiantza-mailarako).

4. Ikerketaren emaitzak


Aurkegai den ikerketaren galdetegiak hiru atal nagusi ditu. Lehen zatian balioei eta kultura politikoari buruzko galdera sortak jasotzen dira; bigarren zatian, berariaz auzolanari eta beroni lotutako ideiei buruz galdetzen da; hirugarren eta azken zatian, berriz, herri txikiei buruzko galdera-sortak biltzen dira. Galdetegiaren emaitza guztiak hemen biltzeak espazio nahiz eduki aldetik zailtasunak edota ezintasunak lekarzkeenez, jarraian, aipatu atal bakoitzeko emaitza nagusi eta esanguratsuenak plazaratuko dira.

4.1. Balioak eta kultura politikoa

Gipuzkoako landa eremuko herri txikietan bizi diren herritarrei galdetzen zaienean bizitzan beraiantzat garrantzitsuena zer den, alegia, zer lortzen edo mantentzen saiatzen diren (1. Irudia), gehiengoak familia (%32,5) eta osasuna (%30,3) azpimarratu ditu. Horien atzetik, bigarren maila batean aipatzen dira zorientasuna (%16,6), lana edo lan hobea (%11,6), lagunak (%8,3) eta lasaitasuna (%7). Hirugarren maila batean, baita ere aipatu dituzte ongizatea (%4), pentsio-erretiro duina (%2,3), aisialdia (%1,3) eta bestelako hainbat kontu (%4,3).

Oro har, gehien azpimarratu diren lehen bi elementuak, familia eta osasuna, Euskal Herriko gizarteari egindako antzeko inkesta orokor ia guztietan ere agertzen dira, eta zehazki, ikerketa honetan konparatzeko erabilitako Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019ko ikerketa soziopolitikoaren (2. irudia) ia datu berdinak ateratzen dira. Hortaz, pertsonak garrantzia ematen dieten gai nagusi gisa, landa eremuan ere joera orokorrak antzematen dira. Aitzitik, gutxienez azpimarragarria da bi ikerketak alderatzean, zorientasunaren bilaketa esplizituak duen presentzia ezberdina (ia 13 puntuko aldea), eta lanak edo lan hobea lortzeak duten garrantzia txikiagoa (ia 8,5 puntuko aldea).

1. irudia. Balio sistema orokorra




2. irudia. Balioen alderaketa beste ikerketekin




Konkretuki balio batzuez galdetzean, eta horietatik bi aukeratzeko eskatzean (3. eta 4. irudiak), askogatik gailendu den balioa errespetua izan da (%33,6 lehen aipamenean eta %21,6 bigarreanean). Jarraian, herri txikietakoko biztanleek konfiantza lehenetsi dute (%14 lehen aukeran eta %11,6 bigarreanean). Ondoren, maila

bertsuan aukeratu dituzte apaltasuna (%7,6 eta %7,3), zintzotasuna (%7,3 eta %7,6), justizia (%6,6 eta %8,3) eta elkartasuna (%6,3 eta %8,3). Jarraian datoz leialtasuna (%5,3 eta %5,3), erantzukizuna (%4,3 eta %6,6) eta lanerako gaita-

3. irudia. Balio nagusien lehen aipamena



4. irudia. Balio nagusien bigarren aipamena



suna (%4 eta %6,6). Galdetu balioen artean azken mailan aukeratu dira ahalegina (%3 eta %5,2), tolerantzia (%3 eta %4,7), talde lana (%3,7 eta %2), entzuteko gaitasuna (%1 eta %2,3) eta kide izatearen sentimendua (%0,3 eta %2).

Balio nagusien aukeraketan lehenengo eta bigarren aipamenak batu eta Gipuzkoa mailako ikerketarekin alderatzean (5. irudia), ezberdintasun hainbat antzematen dira. Ia balio guztietan daude ezberdintasunak, baina lehen postuetan daudenak balio berberak dira: errespetua, elkartasuna, zintotasuna, justizia... Salbuespen bat dago: ikerketa honetan bigarren lekuan konfiantza agertu da pisu handiz eta diferentzia handiz Gipuzkoa mailako ikerketarekin konparatuta (19 puntuko aldea). Horrez gain, lehenengo eta bigarren balioek (errespetua eta konfiantza) gainontzeko garrantzitsuenei ateratzen dieten tarte handiagoa da ikerketa honetan, konparagarri den azterlanean baino.

Balioez gain, kultura politikoa ezagutzeko parte hartze eta jarrera politikoei buruz ere galdetu zaie herri txikietako biztanleei. Zehazki, lehenik hainbat baieztapen orokorri buruzko adostasuna edo desadostasuna eskatu zaie (6. irudia). Gehienentzat, bi heren baino gehiagorentzat, hauteskundeak garrantzitsuak direla esan daiteke, "denbora galtzea" ez direla baitio %69,1ek, nahiz eta %23,9k hala kontsideratzen dituen. Ildo berean, herritarren %52,8k uste du politikan parte hartzeko modu bakarra botoaren eta alderdi politikoen bidez dela; aitzitik, kontrako ustea du populazioaren %37,5ek. Gehiengoak (%53,8) bere inguruan hartzen diren erabaki politikoetan gehiago parte hartu nahiko lukeela dio, eta aldiz, heren batek baino gehiagok (%38,5) ez du horretarako beharrik adierazten. Posizionamendu horiek bat, herritarren %51,2 prest agertu da politika publikoak definitzeko eta erabakitzeko parte hartze prozesuetan denbora librearen zati bat erabiltzeko; prestutasun hori ez luke, ordea, herritarren %42,9k. Abstentzioari dagokionez, %55,8k iritzi po-

5. irudia. Balio nagusiak beste ikerketekin alderatuta

2 Hurrengo zerrrendatik aukeratu beharko bazenu, zein izango liriteke zure bi balio nagusiak? (%)

"GIPUZKOAKO IKERKETA SOZIOPOLITIKOA, 2019" AZTERLANAREKIN ALDERATZEAK:


	"Auzolanaren balioak (Gipuzkoako herri txikietan, 2020)"	"Gipuzkoako ikerketa soziopolitiko, 2019"
Errespetua	55,1	39,0
Elkartasuna	14,6	24,4
Zintotasuna	15,0	24,0
Justizia	15,0	20,7
Tolerantzia	7,6	15,0
Leialtasuna	10,6	12,0
Apaltasuna	15,0	11,5
Ahalegina	8,6	6,9
Erantzukizuna	11,0	10,1
Talde-lana	5,6	10,9
Entzuteko gaitasuna	3,3	5,8
Konfiantza	25,6	6,6
Lanerako gaitasuna	10,6	6,4
Kide izatearen sentimendua	2,3	3,9

*Unibertsitatearen arteko portzentajak. Erantzun anizkoitza.

litikoa adierazteko modu legitimoa dela baieztatzen du, eta %34,9k, kontrara, ez du bat egiten baieztapen horrekin.

Datu horiek ikusita, badirudi herri txikietako biztanleen gehiengoak bat egiten duela hauteskunde sistemarekin, baina badagoela parte hartze politikoa handitzeko nahi edo gogo bat biztanleen erdiaren artean. Baina, 10 biztanletik 4 baino gehiago parte hartzean sakontzeak lekarkeen denbora librearen galera onartzeko ez legoke prest. Hortaz, badirudi herri txikietan badagoela masa handi bat parte hartze politikoa sakontzeko potentzialki prest legokeena, baina aldi berean, badagoela beste masa handi bat ez duena horretarako beharrik ikusten edo ez dagoena horretarako prest.

6. irudia. Parte hartze politikoaz



Parte hartze politikoarekin zerikusia duten hainbat baieztapen baloratzeko (0-10 eskalan) ere eskatu zaie herritarrei (7. irudia). Puntuazio altuena (8,39) lortu duen baieztapena honakoa izan da: “jendeak aktiboki parte hartu behar du eragiten digun horretan (auzo-herriaren ongizatea, ikasketa planak, enplegu politikak, aisialdi politikak, etxebizitza politikak...). Jarraian balorazio altuena (8,11) lortu du norbere lanaren bidez ingurune hurbila hobetzearen eta aldatu nahi dena aldatzearen ideiak.

Oro har, politikak edozein herritarren bizitzan eragin handia duela uste dute herritarrek (7,49), baina kritikoak dira alderdi eta erakunde sistemarekin. Izan ere, aldaketa sozial bat eragiteko alderdien bidea baino egokiagoa kontsideratzen da mugimendu sozialena edo auzoko mugimenduen (7,69). Erakundeek antolatzen dituzten parte hartze prozesuak berriz, marketina baino ez direla uste dute herri-

tarrek hein handi batean (7,08). Ildo berean, herritarrek oro har uste dute politikan parte hartzeko aukerak badaudela, baina bide ofizialeatik kanpo topatu behar direla horretarako baliabideak (6,94). Bestalde, ordea, gobernuak egiten duenean eragiteko jende arruntak duen modu bakarra botoaren bidez dela ere iritzi nahiko onartua da (6,27), eta gizarteko arazo nagusien konponbideak gobernuen eta politikaren esku daudela ere nahiko ontzat ematen da (5,89).

Balorazioen erdi mailan, 5eko puntuazioa justuan gáindituta aurkitu ditugu honako baieztapenak: “gai sozial edo politikoetan parte hartzea gustatuko litzaidake, baina ez dakit nola egin” (5,47); “ez dut inolako betebeharririk sentitzen dinamika sozial edo politikoetan inplikatzeko” (5,36); “ez zait gustatzen jendeak nire ideia politikoak ezagutzea” (5,12); eta “mundu guztiak bere interesak bilatzen ditu, eta hobe da gauza bera egitea (norbere interesak bilatzea)” (5). Bost punturen inguruan dabilzan baieztapen hauetan guztietan desbiazio tipikoa ere handia dela ikusten da, eta hortaz, pentsa daiteke oso ikuspegi ezberdinak daudela hauen gainean, eta kultura politiko ezberdinak nabarmentzen direla ideia horiei dagokienez.

Kultura politiko orokorrari buruzko baieztapenak baloratzean ere badaude ezberdintasunak ikerketa honen eta gizarte orokorrari galdetuta egindako ikerketen artean. Zehazki, baieztapen hauek 2017an Aztikerrek Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako *Gipuzkoako Kultura Politikoari buruzko azterlanarekin* alderatu⁴ dira (8. irudia). Alderaketan ezberdintasunak ikusten badira ere, oro har, nahiko an-

7. irudia. Kultura politiko orokorrak

	Ebatez bestekoa	Desb. Tip.
Jendeak aktiboki parte hartu behar du eragilen dugun horietan (gauzo-herraren ongizatea, ikasketa-planoak, enplegu-politika, asiak- eta etxebizitza-politika...)	8,39	1,618
Politikak eragin handia du edozein herritarren bizitzan	7,49	2,286
Aldaketa sozial bat burutzatu nahiko banu, ez nuke alderdi politiko bat sortuko, hobe da mugimendu sozialetatik edota auzokoeatik egitea.	7,05	2,277
Nire lanare bidez, nire ingurune hurbilena hobetzen saiatzen naiz. Lardatu nahi dudana aldatzen.	8,11	1,929
Erakundeetatik antolatzen diren parte-hartze prozesuak marketina baino ez dira (pose)	7,08	2,465
Ni bezalako jendeak gobernuak egiten duen horietan eragin dezakeen modu bakarra botoa ematea da.	6,27	2,837
Gure gizartearen eragilen dituen arazo nagusien konponbideak. Gobernuaren eta politikariren esku baino ez daude.	5,89	2,872
Jendeak politikan parte hartzeko aukerak ditu, baina bide ofizialeatik kanpo bilatu behar dituzte beren baliabideak.	6,94	2,522
Gai sozial edota politikoetan parte hartzeko modu bat izatea gustatuko litzaidake, baina ez dakit nola egin.	5,47	3,233
Mundu guztiak bere interesak bilatzen ditu, eta hobe da gauza bera egitea (norberaren interesa bilatzea).	5,00	3,077
Ez zait gustatzen jendeak nire ideia politikoak ezagutzea	5,12	3,115
Ez dut inolako betebeharririk sentitzen dinamika sozial edo politikoetan inplikatzeari	5,36	3,110

4. Kontuan hartu behar da ikerketa honetan balorazioa 0-10 eskalan eskatu dela, eta alderagai den 2017koan 1-10 artean.

8. irudia. Kultura politiko orokorra beste ikerketekin alderatuta

6 Zenbait baieztapen irakurriko dituzut. Esadazu zenbateraino zauden ados baieztapen horiekin; 0 baieztapenarekin erabateko desadostasuna da, eta 10 baieztapen horrekin erabateko adostasuna.

“GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN KULTURA POLITIKOARI BURUZKO AZTERLANA. 2017” IKERKETAREKIN ALDERATZEA:

	2020 (Herri txikietan)	2017 (Gipuzkoa osoan)
Jendeak aktiboki parte hartu behar du eragiten digun horietan (auzo-herraren ongizatea, ikasketa-planak, enplegu-politikak, aisialdi- eta etxebizitza-politikak...)	8,4	7,6
Politikak eragin handia du edozein herritarren bizitzan	7,5	7,1
Aldaketa sozial bat bultzatu nahiko banu, ez nuke alderdi politiko bat sortuko, hobe da mugimendu sozialetatik edota auzoketatik egitea	7,7	6,8
Nire lanaren bidez, nire ingurune hurbilena hobetzen saiatzen naiz. Aldatu nahi dudana aldatzen	8,1	6,7
Erakundeetatik antolatzen diren parte-hartze prozesuak marketina baino ez dira (pose)	7,1	6,4
Ni bezalako jendeak gobernuak egiten duen horietan eragin dezakeen modu bakarra botoa ematea da	6,3	5,6
Gure gizarteari eragiten duten arazo nagusien konponbideak Gobernuaren eta politikarien esku baino ez daude	5,9	4,9
Jendeak politikan parte hartzeko aukerak ditu, baina bide otzialetatik kanpo bitatu behar dituzte beren balabideak	6,9	5,7
Gai sozial edota politikoetan parte hartzeko modu bat izatea gustatuko litzaidake, baina ez dakit nola egin	5,5	4,3
Mundu guztiak bere interesak bilatzen ditu, eta hobe da gaurra bera egitea (horberaren interesa bilatzea)	5,0	4,1
Ez zait gustatzen jendeak nire sota politikak ezagutzeari	5,1	4,5
Ez dut inolako betebeharririk seritzien dinamika sozial edo politikoetan inplikatzeari	5,4	4,8

* OHARRA: 2020-KO INKESTAN, ERABILITAKO TARTEA 6 ETA 10 ARTEKOA DA; 2017-KO INKESTAN, BERRIZ, 1 ETA 10 ARTEKOA.

tzeko kultura politikoa ikusten da herri txikietan zein Gipuzkoa mailan. Agian, deigarria da herri txikietan garrantzitsuagoa kontsideratzen dela bakoitzak bere lanaren bidez ingurunea hobetzen eta aldatzen saiatzea, eta baita jendeak eragiten dion horretan aktiboki parte hartzeko betebeharra edukitzea ere.

Parte hartze politikoari buruzko ikuspegi eta iritziez ez-ezik, parte hartzeko esperientzia konkretuei buruz ere galdetu zaie herritarrei. Zehazki, borondatezko jarduera edo erakundeetan parte hartzen duten edo iraganean parte hartu izan duten galdetu zaie (9. irudia). Guztira, planteatutako erakunde edo jardueretan herritarren %81ek parte hartzen du edo parte hartu izan du noizbait.


Erakunde edo elkartei dagokionez, egun parte hartze handiena kultura edo aisialdi taldeetan (%33,9), kirol taldeetan (%24,3) eta gizarte laguntza edo giza eskubideen aldeko erakundeetan (%21,6) dago. Eta egun ez parte hartu arren, iraganean horietan ere beste jende asko ibili da: kultura eta aisialdian %26,9, kirolean %21,6 eta gizarte laguntzakoetan %14,3. Jardueri dagokienez, auzolan komunitarioan parte hartzen duen herritarren kopurua ere oso esanguratsua da: egun %24,3 eta noizbait parte hartu dutenak %17,3.

Parte hartze maila apalagoan kokatzen dira, auzo elkarteetan (egun %18,9 eta iraganean %15) eta guraso elkarteetan (egun %15 eta iraganean %16,3) parte hartzaile diren edo izan direnak. Jarraian datoz sindikatuetan parte hartzea (egun %14 eta iraganean %7), parrokiari edo erlijioarekin lotutako erakundeetako parte hartzea (egun %10,6 eta iraganean %9,6), alderdi politikoetan parte hartzea (egun %8,3 eta iraganean %9,3). Azkenik, gazte edo ikasle elkarteetan egun %6k parte hartzen du (noizbait %15ek parte hartu ohi izan du), eta enpresarien elkarteetan egun %1,7k parte hartzen du (inoiz %2,7k).

Emaitzei beste alde batetik begiratuta, deigarria da 10etik 8 inguruk sekula ez duela parte hartu alderdi politiko edo sindikatu batean, ikasle edo gazte elkarte batean, edo erlijioari lotutako erakundeetan. Era berean, azpimarratzekoa da herri txikiak herriaren ia %60k sekula ez duela parte hartu izan auzolan komunitarioan.

Horiek horrela, ikusten da pertsonen herri txikiak bizitza kolektiboetan parte hartzeko dituzten bide nagusiak kirola, kultura, aisia eta gizarte gaietara lotutako erakundeak direla. Aldiz, izaera politikoagoa kontsideratzen zaien bestelako elkarte edo erakundeetan (alderdi politikoak, sindikatuak, enpresari elkarteak...) gutxiengoak parte hartzen du. Azpimarratzekoa da guraso elkarteek edo ikasle eta gazteen elkarteek, adin tarte bati bakarrik lotutakoak izan arren, presentzia garrantzitsua dutela herri bizitzetan. Konstatatzen da erlijioa egun gutxiengo baten hautua dela herriko sistemaren parte hartzeko bitarteko gisa. Azkenik, auzolan komunitarioak, herrietan guztiz zabaldu eta partekatutako praktika ez izan arren, egun oraindik presentzia garrantzitsua (herriaren laurden batek parte hartzen du) duela ikusten da herri txikiak bizitza kolektiboetan.

9. irudia. Borondatezko lanaz eta parte hartzeaz



Aipatutako jardueraren edo erakundeetan parte hartzen duten edo parte hartu izan duten herritarrei (guztien artean %81) galdetu zaie baita ere, parte hartzeko modu edo ekintza konkretuei buruz (10. irudia). Horietako gehienek auzoaren edo herriaren bizimodua hobetzen beste auzokide batzuekin batera lan txikiak eginez (%71,4) edota komunitatearentzako jaiak edo ospakizunak antolatzen (%70,2) parte hartu dute. Grebaren batean parte hartu dutenak %66,1 dira eta jardueraren sozial edo politiko baterako dirua biltzen ibili direnak %60,8.

Politikan eragiteko moduei dagokienez, %57,1ek dio inoiz aritu dela talde antolaturen batekin elkarlanean politika publikoetan eragiteko; aldiz, alderdi politikoren batekin elkarlanean noizbait aritu direnak %23,7 dira. Beste auzotar batzuekin herriaren etorkizuna pentsatzen eta planifikatzen jardun izan dutenak %43,3 dira. Kontsumo ohituretan politika, etika edo ingurumen arrazoiengatik aldatetaren bat egin dutela diotenak, berriz, %51, 8 dira.


Adierazpen politiko eta publikoei dagokienez, erdia baino gutxiago dira nolabait parte hartzen dutenak modu batean edo bestean: iritzi soziala edo politikoa adierazteko bereizgarriren bat eramanez (%41,6), kontaktuen artean deialdiaren bat zabalduz sareen bidez (%47,3), eta albiste edo gai politiko/sozialei buruzko programa eta foroetan iritzia plazaratuz (%31).

Emaitza hauetan ikus daitekeenez, herri txikietako parte hartze handiena ingurune hurbileko errealitatean eragiteko jarduera kolektiboetan gertatzen da: jaiak, auzoa hobetzea, eta antzekoak. Era berean, aipagarriak dira elkarlanerako kultura eta ekonomikoki (auto)finantziazioa bilatzeko ohitura. Azpimarratzekoa da, horiez gain, herritarren erdiak baino gehiagok publikoki iritzi politikoak ez dituela adierazten.

Parte hartzeko zergatiak eta motibazioak ezagutu nahian, parte hartzen dutela diotenei, aukeratzeko balizko hainbat arrazoi eman zaizkie (11. irudia). Plan-teatutako aukera guztiek adostasun maila oso altua izan dute eta nolabait, parte hartzaileen artean erantzukizunaren, betebeharren, hainbat eskubideren eta ohi-turen pisua nabarmen agertu da.

Parte hartzaileen %91k bat egiten du honako baieztapenarekin: “gure etorkizuna erabakitzen ari denean, entzun gaitzaten eskubidea dugu, eta elkarrekin errazagoa da horrela izatea”. Eskubideen ildo berean, %86,9k uste du elkarteetan parte hartzea eta gauzak hobetzeko elkarrekin lan egitea eskubidea dela. Aldi be-


10. irudia. Elkarte edo ekintzetan parte hartzeaz



rean, %85,3k bat egiten du “elkarlanean eta elkarrekin gauzak hobetzen laguntzea gure betebeharra” dela dioen baieztapenarekin. Azkenik, deigarria da %81,6k aitortzen duela “txikitatik bere ingurunean bizi izan duen zerbait izanik”, parte hartzea “egin behar dena” dela; alegia, ohiturei eta auzo/herrietako kultura kolektiboaren sozializazio prozesuei lotuta ere azal daitezkeela herritar gehienaren parte hartzeko joerak.

Bestalde, parte hartzen ez duten %19 horiei zergatiengatik galdetuta, ia guztiek (%85,7) denborarik ez dutelako ez dutela parte hartzen diote.

11. irudia. Parte hartzeko arrazoiak



4.2. Auzolanari buruz

Ikerketa honetan berriaz galdetu da auzolanari buruz. Zehazki, auzolanaren kontzeptioan dauden elementu nagusiak ezagutu nahi izan dira batetik, eta etorkizunera begira auzolanak zer-nolako aukerak eduki ote ditzakeen jakin nahi izan da bestetik. Oro har, auzolana gizartearen ikuspegi komunitario batekin lotzen da, balia aitortzen zaio, identitatearekin duen erlazioa azpimarratzen da eta etorkizunera begirako aukerak ikusten zaizkio.


Auzolanak ikuspegi komunitarioaren kontzeptioarekin zerikusia duela argi geratzen da bi baieztapen hauek (12. irudia) herri txikitako biztanleen artean jasotako adostasun zabalarekin: “Auzolanak baliabide komunak mantentzeko eta garatzeko balio du, eta horrela eginez, hobeto bizitzeko aukera ematen digu komunitateko pertsona guztioi” (%88 ados) eta “auzolanak kide izatearen sentimendua eta komunitate sentimendua indartzen laguntzen du, gehiago elkartzen

gaitu” (%85,7 ados). Nortasunari dagokionez, %81,7k uste du “auzolana gure nortasunaren, gure izaeraren parte” dela. Baliagarritasunari begira, %21,6k bakarrik bat egiten du “auzolanak XXI. mendean zentzurik ez duen” ideiarekin; aitzitik, %82,1ek uste du “auzolana baliagarria dela administrazio publikoa iristen ez den lekuetara iristeko”.


Auzolanaren bilakaera historikoari erreparatu eta etorkizunari begira (13. Irudia), herritarren gehiengoak uste du azken urteetan pixkanaka indarra galduz doala (%60,8); aitzitik, %19,6k ez du gainbehera hori ikusten, eta batzuek uste dute inoiz baino biziago dagoela (%17,9). Auzolanaren balizko indar galtzeari eta horren jatorriko arrazoiei buruz, ez dago adostasun zabalik: “Auzolanak indarra galdu du, azken urteetan herrira bizitzera etorri diren pertsonak ez dutelako erabilgarri ikusten” dioen baieztapenarekin bat egiten du %39,9k; ez du bat egiten %35,2k eta ez du erantzun %24,9k. Antzeko bidean, “auzolanak indarra galdu du, erabilgarritasuna galdu duelako” dioen baieztapenarekin bat egiten du %38,2k; ez du bat egiten %39,9k eta ez du erantzun %21,9k.

Etorkizunari begira, herritarren gehiengo zabalak (%72,4) uste du auzolanak etorkizun ona izango duela “herri txikien gaurko beharretara egokitzen bada”. Baikortasun hori auzolaneko kultura erakutsi beharrezkin lotzen da gehiengoarentzat. Izan ere, herritarren %75,4k uste du “auzolanak etorkizuna ona izango duela, familian eta eskolan transmititzen” bada.

12. irudia. Auzolanari buruzko iritzia 1



13. irudia. Auzolanari buruzko iritziak 2




4.3. Herri txikiei buruz

Galdeketa azken zatian berriaz herri txikiei buruz eta herri txikien etorkizunaz galdetu zaie herri horietan bizi diren herritarrei. Alde batetik, herri horietako bizi-modu eta antolakuntza kolektiboko moduei buruzko iritziak ezagutu nahi izan dira. Bestetik, herri txikietan bizitzeko arrazoi eta onura nagusiak zeintzuk diren identifikatu nahi izan da. Eta azkenik, herri txikien etorkizunerako lehentasunak zertan jarri beharko liratekeen galdetu zaie herritarrei.


Herri txikietako bizi-modu eta antolakuntza kolektiboari dagokionez (14. irudia), herritar ia guztiek bat egin dute beharrezkotzat ikusten dituzten bi ideekin: “ideiak eman ahal izateko eta herrian egiten ari dena baloratzeko espazio eta uneak eskaintzea” (%96,3) eta “herrira datozen pertsonen herriaren errealitatea ezagutzeko laguntzea eta parte har dezatela nolabait komunitateko bizitzan” (%94,7). Ikuspegi komunitario horretan, hamar herritarretatik zortzik (%80,4k) uste du “komunitaterako lan egiteko pertsona bakoitzaren ordu batzuk eskaintzea beharrezkoa” dela herri txikietan. Azkenik, bi heren baino gehiagok (%69,4k) uste du herri txikietan beharrezkoa dela udaletxea kudeatzeko auzo-plataforma edo antzekoetan antolatzea eta alderdi politikorik ez egotea; %30,6k kontrakoa pentsatzen du.

Herri txikietan bizitzeko arrazoiez modu irekian galdetuta (15. irudia), guztien gainetik motibo bat gailentzen da: lasaitasuna (%55). Lasaitasunarekin estuki lotu daitezkeen beste bi elementu datoz arrazoiaren arteko bigarren mailan: familiartasuna/konfiantza (%18) eta natura (%17). Maila apalagoan aipatzen dira familia loturak bertan izatea, betikoa izatea edota identitatea (%6), eta askatasuna (%2). Horiez gain, etxebizitza handiagoak eta merkeagoak edukitzeko aukera, errazago aparkatzeko onura edota mundu guztia hirian ezin dela bizi ere irten dira emandako arrazoiaren artean.

14. irudia. Herri txikiei buruzko ikuspegia




15. irudia. Herri txikietan bizitzeko arrazoiak



Herri txikien etorkizunari begira, eta bereziki ongizatezko etorkizun oparoa bermatzeko lehentasunak zertan jarri beharko liratekeen galdetzean (16. irudia), gehienek (%40) zerbitzu publikoak (irakaskuntza, merkataritza, osasuna) hobetzea hobesten dute. Zerbitzuei lotuta, %10ek garraioa eta komunikazio bideak azpi-

marratzen dituzte eta %8k Internet. Bestelako baldintza garrantzitsu gisa agertzen dira lana eta lan aukerak bertan edo ingurune hurbilean edukitzea (%9) eta etxebizitza aukerak (%8) gazteak bertan gera daitezen erraztuz, edota baserriak konpontzeko laguntzekin, adibidez. Auzolana, ohiturak gordetzea, bertakotasuna edota identitatea lehenetsun nagusi gisa %6k bakarrik aipatu ditu. Azkenik, bada erakunde handiagoen laguntza berariaz aipatzen duenik ere (%4).

16. irudia. Herri txikietarako etorkizuneko lehentasunak



5. Ondorioak

Euskal Herriko herri txikien etorkizuneko garapenari lagun diezaiokkeen heldulekuri ba ote dago auzolanaren kultura? Galdera horri erantzun nahian abiatu zen ikerketa hau, eta galdera horren hariari tiraka ondu dira artikulu honetan landutako marko teorikoa eta plazaratutako ikerketaren emaitzak. Ibilbide honen amaieran, ondorio moduan, galderaren erantzunera gerturatzeko balio dezaketen hainbat ideia jaso dira.

Lehenik, inkestaren lehen zatiko emaitzei begira, ondorioztatzen da Gipuzkoako landa eremuko herri txikietako biztanleen balio sistema orokorrari, kultura politikoari eta sozialari dagokionez, Gipuzkoako gizarte orokorraren antzekoak direla. Edo beste modu batean esanda, gizartean nagusi diren balio, mundu ikuskeran, ikuspegi politiko, joera eta abarrak landa eremuko herri txikietan ere antzematen direla. Honek nolabait baieztatuko luke, Gipuzkoan “landa eremu” deritzogunean ere bizimodua aski urbanoa dela diotenen planteamendua; eta era berean erakutsiko luke, XXI. mende honetan, munduarekin eta inguruko gizartearekin batera doazela herri txikietako biztanleak ere.

Bigarrenik, aipatu antzekotasun orokor handiak egon arren, badaude hainbat balio, jarrera eta jokabidetan hainbat ezberdintasun herri txikien eta Gipuzkoa osoaren artean. Eta ezberdintasun horien oinarrian egon daiteke norbere auzo edo herriaren kontzepzio komunitario bat. Adibidez, errespetuak edo konfiantzak garrantzia handiagoa hartzea, oso loturik egon daiteke komunitate txikietan bizitzeko baldintzekin. Edota adibidez, herriko edo auzoko festak, edo ingurune hurbila hobetzeko lanetan populazioaren hain zati esanguratsuak parte hartzea komunitate baten parte sentitzetik uler daiteke. Hortaz, gizartean orokorrean indarra hartzen doazen indibidualismo, bizimodu anitz, kode moral multipleak, eta abarrak herri txikietan ere eragina duten arren, oraindik badago kontzepzio eta kultura komunitario nabarmena.

Hirugarrenik, Gipuzkoako herri txikietan identifika daitekeen kontzepzio komunitarioaren oinarrian dauden balio, jarrera, jokabide eta ohitura multzo handi bat auzolaneko kulturaren jarraipen gisa uler daitezke agian. Marko teorikoan azaldu auzolaneko kultura hori (pertsona burujabeen eta elkarrekikoaren zentzuan oinarrituriko kultura berezi gisa) kolektibitatean parte hartzeko mota ezberdinetakoa esperientziei buruzko emaitzak irakurtzean, adibidez, argi ikus daitekeela uste dugu.

Aitzitik, laugarrenik, parte hartze mota horiek herrietako biztanleek ez dituzte auzolaneko kulturaren ondorio gisa identifikatzen, sarreran eta marko teorikoan azaldu bezala, herritar gehienek jarduera mota konkretu batzuekin identifikatzen baitute auzolana. Hala ere, auzolan komunitarioan herritarren laurdenak parte hartu dutela erantzuteak esan nahiko luke, batetik, guztientzat ez dela “bide-garbitze” edo antzekoetara mugatzen kontzeptuaren esanahia; eta bestetik, oraindik praktika gisa presentzia eta indarra baduela herrietako funtzionamenduan.

Boskarrenik, berariaz auzolanari buruz galdetzean,aldi berean bi ikuspegi agertzen dira. Batetik, auzolana indarra galtzen doala uste dute gehienek, baina aldi berean, egokituz gero, etorkizuneko beharrei erantzuteko ere erabilgarria izan daitekeela uste da. Alegia, balioa aitortzen zaio auzolanari. Hortaz, eman dezake, badagoela auzolanaren kontzeptuaren gaineko mito moduko bat elkarlanari, ongia egiteari, denak elkarrekin joateari, eta antzeko balio batzuei lotuta, baina egungo herri txikietako gizartea ez duela gehiengoak bide horretan ikusten.

Seigarrenik, auzolanaren kontzeptua balioesteak eta puntu batean idealizatzek, etorkizunera begira lantzeko aukera handiak zabaltzen ditu, abiapuntuan babes esplizitatua duelako eta jende gehienaren iruditerian auzolanak ezaugarri onak dituelako. Horrekin batera, gainera, gehienek egokituz gero erabilgarria izan daitekeela uste dute.

Zazpigarrenik, herri txikietan bizi direnek argi identifikatzen eta balioesten dituzte landa eremuko herri horietan bizitzeko arrazoi eta onura nagusiak. Lasaitasunarekin, gertukotasunarekin, naturan bizitzearekin... erlazionatzen da herri txikietan bizitzea. Aztertu beharko litzateke bizi-ikuspegi eta paradigma horietan auzolaneko kulturaren sustraiko elementuek zenbaterainoko pisua duten, edota nola uztartzen diren egungo Mendebaldeko ondo bizitzearen kontzepzio berrituen korrante emergenteekin.

Zortzigarrenik, eta inkestari dagokionez azkenik, herri txikien etorkizuneko beharrei erantzuteko lehentasunak ezartzean, nagusiki baldintza materialak azpimarratzen dituzte herri txikietako biztanleek: zerbitzuak, azpiegiturak, etxebizitza,

lana eta antzekoak. Aldiz, ez dira lehenesten auzolaneko kultura, nortasuna, tradizioa eta antzeko baldintza ez-materialak. Eta inkestan zehar hainbat galderetan, eta bereziki auzolanari begira, herrietako bizitza komunitarioa aldatzen eta ahultzen ari den kontzientzia agertzen bada ere, etorkizuneko lerro nagusiak identifikatzerakoan, alde ez-material horren garrantziaren kontzientzia ez da esplizitatzen.

Hauek guztiak horrela, eta inkestaren emaitzen ondorioez gain⁵, ikerketa lan honek guztiak, besteak beste, irakatsi digu:

1. Badu zentzua landa eremuko herri txikien etorkizuneko garapenari elementu ez-materialetatik, ikuspegi komunitariotik eta auzolaneko kulturen tradiziotik heltzeak.
2. Herri txikietan, nahiz eta neurri handi batean gizarte orokorrarekin homogeneizatuta egon, badaude oraindik bizirik auzolaneko kultura komunitarioaren zenbait helduleku. Badirudi azken urteetan higitzea eduki dutela, baina oraindik bizirik egonik, palanka gisa balio dezakete herri garapenerako.
3. Beharrezkoa da auzolanaren kontzepzio zabala jorratzea eta horren kontzientzia hartzea, egungo beharretara egokitzea eta moduak artikulatzen asmatzea XXI. mendeak eta XXI. mendeko herri txikietako biztanleek dituzten balio, behar eta interesei erantzunez.

5. 2021 urtean galdeketa errepikatu dugu, eta Covid-19ak herri txikietako bizitza komunitarioan izaniko eragina ere azteru dugu. Lehen emaitzak "Pandemiaren eragina landa eremuko bizitza eta balio komunitarioetan" artikuluan aurreratu ditugu. Ikus *Euskonews*, 765, 2021-10-20 / 2021-11-23.

Bibliografia

ALMOND, G. eta VERBA, S. (1963): *The Civic Culture. Political Attitudes and Democracy in Five Nations*. Princeton: Princeton University Press.

ARENDRT, H. (1958): *The Human Condition*. Chicago: Chicago University Press.

AZTIKER (2017): *Gipuzkoako Kultura Politikoari buruzko azterlana*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

BAUMAN, Z. (1988): *Freedom*. Philadelphia: Open University Press.

—. (2007): *Consuming Life*. Cambridge: Polity.

EIZAGIRRE, A. eta MUÑOIA, I. (Koord.) (2021). *Burujabetzaren bidetik: bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea*. Lasarte: Etor-Ostoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2019): *Gipuzkoako soziometroa: ikerketa soziopolitiko*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Inglehart, R (1977): *The Silent Revolution: Changing Values and Political Styles among Western Publics*. Princeton: Princeton Legacy Library.

—. (1997): *Modernization and Postmodernization. Cultural, Economic and Political Change in 43 societies*. Princeton: Princeton University Press.

JUARISTI, P. (2001): *Euskaldunak eta ondasunak*. Iruñea: Pamiela.

SANDEL, M. (1982): *Liberalism and the limits of Justice*. Cambridge: Cambridge University Press.

—. (2010): *Justice: What's the Right Thing to Do?* New York: Farrar, Straus and Giroux.

TAYLOR, Ch. (2007): *A Secular Age*. Cambridge: Harvard University Press.